

EMAKUMEOK MARTXAN

Emakumeen errealitatea
migrazio prozesuetan





Bilbo

Aita Lojendio, 2 - 2.

48008 Bilbo

☎ 944 151 135

Iruñea

Barañain Etorbidea, 23

31011 Pamplona

☎ 948 231 302

Donostia

Andía, 3

20004 Donostia

☎ 943 275 173

Vitoria-Gasteiz

Estenaga Apezpikua, 1

01002 Vitoria-Gasteiz

☎ 945 202 676

www.emakumeokmartxan.org • www.alboan.org

Emakumeok martxan. Emakumeen errealitatea migrazio prozesuetan

© **alboan** Fundazioa

Egilea: Sara Diego, eragin politikoa. Alboan

Data: 2022ko martxoaren 7a

Diseinua eta maketa: Marra, S.L.

Azaleko irudia:

Irudiak: Irene Galera (azala), Laura Lora, Iván Benítez, Red Jesuita con Migrantes-CANA eta Alboan

Txosten honetan erabilitako irudiak ez datoz bat parte hartzen duten emakumeen identitatearekin, anonimotasuna bermatzeko.



Agiri hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Baimena duzu lan hau kopiatu, banatu eta publikoki hedatzeko, betiere, kontuan hartuta lanaren kredituak adierazi behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza-xedeetarako erabili. Ezin da lan honetatik eratorritako obrarik aldatu, eraldatu edo sortu.

Lizentzia, osorik: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0>

Aurkibidea

1. Sarrera	5
1.1. Indarkeriak jatorrian – iragatean – xedean genero ikuspegitik	5
1.2. Txostena egin duten erakundeen aurkezpena	6
2. Begirada globala nazioarteko migrazioari	7
2.1. Nazioarteko migrazioa datuetan	8
2.2. Desplazamendu behartua datuetan	9
3. Zergatik migratzen duten emakumeek: arrazoiak jatorrian	11
3.1. Gizarte- eta ingurumen-krisia, giza mugikortasunaren eragile gisa	12
3.2. Indarkeriak eta giza eskubideen urraketak giza mugikortasunaren eragile gisa	13
4. Babesgabetasuna iragatean	15
4.1. Europa: giza eskubideen eta generoaren ikuspegirik gabeko migrazioa	17
4.1.1 Migrazio bideen dibertsitatea	17
- Desplazamendu behartua	19
- Migrazio irregularra	20
- Emakumeen eta nesken salerosketa	23
5. Indarkeriek jarraitu egiten dute xede den lurraldean	25
6. Ondorioak	31
7. Bibliografia	33



1. Sarrera

1.1. Indarkeriak jatorrian – iragatean – xedean genero ikuspegitik

Migrazio-prozesuak zaurgarritasun-bide bat dira pertsona gehienentzat. Ihesa eragiten duten arrazoiek, iragatean aurkitzen diren oztopoek eta harrera-herrialdean dituzten baldintzek babesik gabe, diskriminatuta eta giza eskubideak etengabe urratzen zaizkiela uzten dituzte.

Txosten honen bidez, genero-ikuspegitik eta ikuspegi transnazonaletik, emakume migratzaileen eta migratuen eskubideen urraketak aztertu nahi dira migrazio-prozesu osoan (jatorria – iragatea – xedelekua); **genero-arauek eta -rolek** migrazio-prozesuen kausetan eta ondorioetan nola eragiten duten salatzen. Beharrezkoa da testuinguruak aztertu eta interpretatzea, politikak ebaluatu eta diseinatzea, genero-ikuspegia kontuan hartuta; izan ere, generoak moldatzen ditu emakumeen migrazio-prozesuak, eta, emakumeek, emakume izateagatik, arrisku eta indarkeria handiagoko egoerak jasaten dituzte.

Gainera, gehiegikeria horiek areagotu egiten ditu **indarkerien interseksionalitateak**. Hau da, emakume migratzaile eta migratuek, emakume eta migratzaile izateaz gain, beste diskriminazio-arrazoi batzuk ere jasaten dituzte, aurrekoekin nahasten direnak: adina, arraza, jatorri etnikoa, nazionalitatea, erlijioa, egoera zibila, familia-egoera eta sexu-joera edo -nortasuna, besteak beste.

Ilde beretik, **emakumeen aurkako indarkeriaren espazio- eta denbora-continuumaren** kontzeptuak (Alboan, 2020) emakumeen eta nesken bizitzan indarkeria adierazten duten forma guztiek jarraitutasunaren logikari jarraitzen diotela ikusarazi nahi du, bai denborari bai espazioari dagokienez. Denboraren jarraitutasunak erakusten du emakumeak zaurgarritasun-egoeran bizi direla bizitza osoan; jarraitutasun espazialak, berriz, adierazten du emakumeen aurkako indarkeriak ez direla kultura, eskualde edo herrialde jakin baten kontua soilik, baizik eta errealitate global bat, emakumeek edozein leku geografikotik alban dutena.

Migrazio-testuinguruak berresten du, genero-rol tradizionalen ondorioz, emakume askok ez dutela beren eskubideak berdintasun-baldintzetan baliatzerik. Errealitate horrek, ez bairik gabe, emakumeen migrazio-prozesuak zaildu eta gogortu egiten ditu, eta, ondorioz, emakumeen zaurgarritasuna handitu egiten da migrazio-prozesu osoan zehar, eta desberdintasun-harremanak betikotzen ditu. Hala, azken urteotako migrazioaren feminizazio-joera gero eta handiagoak, migratzaile eta emakume izateagatik aurrez aurre duten diskriminazio bikoitzak eta errealitate horri eta horren ondorioak, hala nola pertsonen salerosketa, lan- eta sexu-esplotazioa, indarkeriak eta abar, ikusezin bihurtzeak eskatzen du emakume migratzaileen errealitatea modu integralean salatzea, herritarrak eta klase politikoa emakumeen eskubideen alde inplikatu eta mobilizatzea, jatorritik hasita, iragatean eta xede duten lekura iristean.

Nazioarteko komunitateak migrazio-fluxuen gobernantza globalerantz aurrera egin behar du, giza eskubideak lehenesten dituen gobernantzarantz, Europan eta Amerikan azken urteotan zenbait korrontek zabalduetako beldurraren eta gorrotoaren diskurtsoari aurre egiteko, bereziki. Txosten hau egin duten erakundeek, lan honen bidez, agerian jarri nahi dituzte biztanleria migratzaileari eragiten dioten desberdintasunak eta eskubideen urraketak, batez ere emakumei eta neskei dagozkienak. Ekitatearekin, justiziarekin, abegikortasunarekin, adiskidetzarekin eta erantzunkidetasunarekin konprometitutako herritartasun globalaren eraikuntza sustatzen dugu, genero-ikuspegitik begiratuta.

1.2. Txostena egin duten erakundeen aurkezpena

SJM-España

SJM-España pertsona migratzaileen eskubideen alde eta herritar guztiek horietara sarbidea izatearen alde lan egiten duen erakunde-sarea da. Jesusen Lagundiak bultzatzen du SJM, Gizarte Sektorean integratzen da eta egiten duen lana migrazioen arloan gauzatzen du.

Espainian pertsona migratzaileekin eta haien alde lan egiten duten gizarte-erakundeak dira SJMko kide: Fundación San Juan del Castillo (Madril), Centro Santo Padre Rubio (Madril), Fundació Migra Studium (Bartzelona), Asociación Claver (Sevilla), Ellacuria Fundazioa (Bilbo), SJM Valencia, Fundación Red Íncola (Valladolid), Asociación Atalaya Intercultural (Burgos), Centro Padre Lasa (Tutera) eta Asociación Loiola Etxea (Donostia). SJMk bulego tekniko bat du Madrilen, eta laguntza juridikoko eta eskubideak behatzeko bulego bat Melillan. Gainera, Migrazioei buruzko Ikasketen Unibertsitate Institutuarekin (IUEM), UP Comillasekin eta Nadorko (Maroko) DDMrekin elkarlanean dihardu.

Entreculturas eta ALBOAN

Entreculturas eta Alboan Jesusen Konpainiaren nazioarteko lankidetzarako gobernu kanpoko erakundeak (GKE) dira Espainian. Justiziaren eta gizarte-eraldaketaren alde egiten dute lan. Horrez gain, aldeztu eta babesten dituen bidezko bost kausen artean, giza mugikortasunaren kausa dago, hau da, "migratzaile behartuak eta errefuxiatuak jatorri-, iragate-, xede- eta itzulera-faseetan laguntzea eta defendatzea. Halaber, mugikortasun behartuko prozesu horiek eragiten dituzten arrazoiak desagerrarazteko borroka ere egiten du. Azkenik, gure gizarteetan harrera-prozesu egokiak erraztuko dituen abegikortasun- eta adiskidetze-kultura sortzen laguntzen du".

Entreculturas eta Alboan mugikortasun behartuko testuinguru ugari eta askotarikoetan daude, Jesusen Lagundiaren erakunde-sare zabal batekin lankidetzan. Gaur egun, errefuxiatu-eremuetan proiektuak ditu Afrikan eta Ekialde Hurbilean (Burundi, Etiopia, Malawi, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Txad, Hego Sudan, Uganda, Kenya, Madagaskar, Afrika Erdiko Errepublika, Maroko eta Libano); eta migratzaileekin Latinoamerikan (Mexiko, Brasil, Kolonbia, Ekuador, Venezuela eta Peru).

2. Begirada globala nazioarteko migrazioari

Jaiotzaz besteko herrialde batean bizi diren pertsonak dira nazioarteko migratzaileak. Munduko populazioaren zati txiki bat dira (% 3,6), munduko biztanle gehienek (% 96,4) ez baitituzte nazioarteko mugak zeharkatzen eta jaioterrian bizi baitira (IOM, 2022). Azken urteetan, bereziki 2015etik aurrera, nazioarteko biztanleria migratzailearen proportzioak goranzko joera erregularrari eutsi dio.

“Guk gure herrialdetik ateratzeko erabakia hartu genuen, baina erabakia hartzea ez da erraza. Bizi kalitaterik ez dugulako atera behar dugu, ikastea zaila egiten zaigulako, gure eskubideak betetzeko askatasunik eta bermerik ez dugulako. Guretzat gogorra da, zaila da irten eta lokarria haustea. Horrek bizitza betiko markatzen du”.

ELLACURIA F., 2021



2.1. Nazioarteko migrazioa datuetan


2020an, gutxi gorabehera, nazioarteko 281 milioi pertsona migratzaile zeuden munduan (munduko populazioaren % 3,6).





% 51,9
gizonak



% 48,1
emakumeak



Iturria: (Migrazioari buruzko munduko datuen ataria, 2020) eta (IOM, 2022).



Iturria: Migrazioari buruzko munduko datuen ataria, 2020.

2.2. Desplazamendu behartua datuetan

Gaur egungo migrazio-fluxuak oso konplexuak dira. Horietako askotan, pertsona errefuxiatuak, desplazatu klimatikoak, migratzaile ekonomikotzat jotzen diren pertsonak, adin txikikoak, salerosketaren biktimak, edo hala izateko arriskuan daudenak, eta familia-berrelikartzeak nahasten dira.

Aurkako egoera gogorak ugaritu egin direnez, bereziki kezagarria da azken urteotan biztanleriak desplazamendu behartuak egiteko hartu duen joera. Mundu osoan behartuta desplazatutako pertsona gehienak elikadura-segurtasun gabezia larriak eta desnutrizioak kaltetutako herrialde edo lurraldeetan zeuden, eta horietako asko klimari lotutako arriskuei eta hondamendi naturalei aurre egiten dieten herrialdeak dira.

Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Mandataritzaren (ACNUR) datuen arabera, 2020an, gerragatik, gatazkagatik, jazarpenagatik, Giza Eskubideen urraketagatik edo ordena publikoa larriki aldatzen duten gertakizunen ondorioz etxetik alde egin behar izan zuten pertsonen kopurua **82,4 milioi pertsonara** iritsi zen. Datu horrek adierazten du 3 milioi pertsona gehiago izan direla aurreko urtearekin alderatuta, eta, zoritxarrez, bikoiztu egin da 2010ean izandako desplazamendu behartuen kopurua (UNHCR, 2020).

“Gizateriaren historian inoiz ikusi gabeko paradoxa da behartutako pertsonen kopurua azken urtean handitzea” [...] “Milaka milioi pertsona COVID-19aren pandemia dela-eta bidaiatu gabe geratu diren bitartean, dozenaka milioik beren herrialdearen barruan desplazatu beharra izan dute”

ANTÓNIO VITORINO, IOMeko ZUZENDARI NAGUSIA (NBE ALBISTEAK, 2021)


2020an behartuta desplazatutako pertsonen kopuru osoa kontuan hartuta (UNHCR, 2020), erdiak baino gehiago –48 milioi– barne-desplazatuak dira (IDP, ingelesezko siglengatik), eta Kolonbia, Siria, Kongoko Errepublikak Demokratikoa, Yemen eta Somalia dira IDP gehien duten herrialdeak.

Heren bat inguru –26,4 milioi– errefuxiatuak dira, eta horien arteko bi heren bost herrialdetan jaiotako pertsonak: Siria, Venezuela, Afganistan, Hego Sudan eta Myanmar.


Azkenik, asilo-eskatzaileen artean, Venezuela nabarmentzen da, **Venezuelako** biztanleek egindako asilo-eskaeren kopurua (147.000 pertsona) beste herrialde batzuen baino nabarmen altuagoa baita. Hain zuzen, atzetik dituen herrialdeak **Afganistan** (talibanen erregimenaren boterea hartu ondoren erregistratutako datuak kontuan hartu gabe) **eta Siria** dira (76.200 eta 73.000 pertsona, hurrenez hurren) dira. Azkenik, Erdialdeko Amerikako ezegonkortasun soziopolitikoaren ondorioz, eskualde horretako bi herrialde asilo-eskaera handiena duten bost herrialdeen artean kokatu dira: **Honduras** eta **Guatemala** (EPDATA, 2021).

Azken bost urteotan, Venezuelak eragin nabarmena izan du migrazio-fluxuetan, eta munduko desplazatze- eta migrazio-krisi handienetako bat da. 2021eko ekainean, Venezuelako 5,6 milioi pertsona inguruk utzi zuten herrialdea, eta % 85 inguru Latinoamerikako edo Karibeko beste herrialde batera joan ziren: Kolonbia, Peru, Txile, Ekuador eta Brasil dira Venezuelako errefuxiatu eta migratzaileen xede-herrialde nagusietako batzuk (IOM, 2022).


Behartuta desplazatutako biztanleak: 82,4 milioi
(munduko biztanleriaren % 1,04)




IDP: 48 milioi



Errefuxiatuak: 26,4 milioi
(% 68ren jatorria sei herrialde baino ez ziren)



Asilo eskatzaileak: 4.1 milioi



Mundu osoko errefuxiatuen % 73 aldameneko herrialdeetan bizi dira.

Nazioarteko biztanleria migratzailea: 281 milioi (munduko biztanleriaren % 3,6).

Behartuta desplazatutako biztanleria: 82,4 milioi (munduko biztanleriaren % 1,04).

Azaldutako datuek erakusten dutenez, zenbaki absolutuen atzean portzentaje txiki batzuk ezkututzen dira; portzentaje horiek agerian uzten dute nazioarteko komunitatearen erabateko borondaterik eza, mundu-mailako fenomeno horri modu koordinatuan erantzuteko behar adina baliabide baititu; horretarako, maila desberdinetako gobernantza eta herrialdeen arteko lankidetzaren behar da, migratzaileak zentroan kokatu eta migrazio seguru, antolatu eta erregularraren aldeko apustua egiteko.

3. Zergatik migratzen duten emakumeek: arrazoiak jatorrian

Gizaki guztiek zerbait hobearen bila migratzen dute, eta, horregatik, jende askok bidaiatu du Lur planetaren inguruan duela milaka urtetik hona. Inoiz ez zen erraza izan emigratzea, eta, emakumea izanik, bidaia guztiz konplikatua da, guztiz mingarria. Gure lurra eta etxea utzita bide arriskutsu bati ekitea helburuak betetzeko, ametsak betetzeko.

BABELGO DORREA - ELLACURIA FUNDAZIOAN PARTE HARTUTAKO EMAKUME BATEK ESANA

Aurreko epigrafean azaldu den bezala, giza mugikortasuna fenomeno globala da, kontinente, herrialde eta kultura desberdinei eragiten die eta elkarrekin lotzen ditu. Migratzeko hainbat modu daude, eta migrazio-prozesua hasten duten pertsona guztiek ez dute hori arrazoi berengatik edo baldintza berberetan egiten. Atal honetan, migrazioa eragiten duten eta pertsonak etxetik ihes egitera behartzen dituzten arrazoiak identifikatzen dira.

Giza mugikortasun globalaren arrazoi nagusia desberdintasunean oinarritutako sistema ekonomiko eta sozial baten hegemonia da; sistema horrek Estatuak, pertsonen eta pertsonen eta naturaren arteko desberdintasuneko botere-harremanak iraunarazten ditu.

Sistema dikotomiko horrek errealitatea aurkako pareetan oinarrituta ulertzen du, eta desberdintasun-arrakalen aniztasuna eragiten du, pertsonen bizitza duina izateko eskubide unibertsalean zuzeneko eragina duena, milioika pertsona beren etxeetatik ihes egin eta migrazio-prozesu bati aurre egitera behartzen dituen hainbat arrazoi eraginez. Hala, kausa nagusiak honako hauek dira: klima-aldaketaren gizarte- eta ingurumen-eragina, gobernantza txarra eta desberdintasuna eta pobrezia areagotzen dituzten politika sozioekonomikoak; gatazka armatuen testuinguruan gertatzen diren indarkeria- eta babesgabetasun-egoerak; arrazan, generoan edo sexu-identitatean oinarritutako indarkeria eta diskriminazio-aniztasuna, besteak beste.



3.1. Gizarte- eta ingurumen-krisia, giza mugikortasunaren eragile gisa

“Migrazioak kezkatzen nau. 5.000 warao indigena baino gehiago daude Brasilgo mugan. Venezuelaren krisi ekonomiko eta politikoa da kausa nagusia. Migratzeko baliabiderik ez duten pertsonak beste herrialde batera iristen dira. Ez dago lanik, ez dago dirurik... bizimodu hobearen bila irteten dira, baina hiri batera iristen direnean edo Brasil zeharkatzen dutenean erronka askoz handiagoa da. Egoera oso konplexua dute, baina ez dira itzultzen. Baina nola itzuliko dira beren komunitateetan, Meatzeetako Arkuaren erruz, ura kutsatuta baldin badago”.

TERESA FARRERA. EMAKUME WARAO INDIGENA. DELTA AMACURO. VENEZUELA

Merkatua erdigunean duen eredu antropozentrikoak, eta munduko potentzia ekonomiko nagusietan hedatutako kontsumismoaren kulturak, biodibertsitate handiko lurraldeen espoliazioa dakar, eta erauzketa-industriak merkaturaren eta gizarte globalen eskaerari erantzuteko beharrezkoak diren ondasun naturaletan erreserba aberatsak inbaditzea. Testuinguru horrek, lurraldeen kontrolik gabeko esplotazioa eragiteaz gain, baliabideen kontrola lortzeko gatazka armatuak eragiten ditu, eta hainbat indarkeria, ez soilik naturarekiko, baita leku horietan bizi diren pertsonetara ere. “Bereziki testuinguru ahuletan, bat-bateko inpaktuek eta garapen moteleko inpaktuek eragina dute beren etxeak utzi behar dituzten edo epe labur, ertain edo luzera utzi behar izango dituzten pertsonen bizi-baldintzetan”. (ECODES, 2019).

Metatze-ereduak eta planeta eta haren ondasun naturalak baliabide mugagabetzat hartzeko moduak zuzeneko lotura dute klima-aldaketa azkartzearekin eta hondamendi naturalen gogortasuna eta maiztasuna handitzearekin; hondamendi horiek, batez ere, hegoalde globaleko herrialdeei eragiten diete modu bereziki kaltegarrian.

Giza jarduerak lotura zuzena du berotegi efektuko gasen (BEG) emisioarekin eta horrek tenperatura globalaren igoeran duen eraginarekin. Hala, klima-aldaketa fenomeno globala den arren, haren inpaktuek modu desberdinean eragiten dute eta eragin handiagoa dute herrialde pobreenetan. Hori, arriskuen esposizio handiagoari ez ezik, zaurgarritasun handiagoari eta erresilientzia urriari ere zor zaio.

Krisi klimatikoak migrazio-prozesuak eragiten ditu, eta migrazio klimatikoak sortzen: klima-aldaketa dela eta, beren ingurunean bat-bateko edo pixkanakako aldaketen ondorioz beren etxea uzten duten pertsonak. Besteak beste, lehortekak, desertifikazioa, kostako higadura, itsas mailaren igoera, urteza, lurzoruen degradazioa, uholdeak, urakan gero eta sarriagoak eta abar, behartutako desplazamenduen arrazoiak dira; izan ere, honakoak eragiten ditzute: elikagaien segurtasunik eza, gaixotasunak, lurraldearen narriadura, uraren kutsadura edo sistema publikoa eta funtsezko zerbitzuak ahuldu eta kolapsatzea. Datuen arabera, 2020an erregistratutako barne-desplazamenduen % 75 klima-gertaerekin lotuta zegoen (CEAR, Greenpeace, 2021), eta kalkulatu da 2050ean 216 milioi pertsona inguru desplazatu beharko direla beren herrialde barruan klima-arrazoiengatik.

2050ean, 216 milioi pertsona gerta daitezke beren herrialde barruan desplazatzera behartuak motibo klimatikoengatik

Ondorioak larriagoak izango dira eskualde txiroenetan eta ahulenetan, eta Saharaz hegoaldeko Afrika (86 milioi pertsona) izango litzateke klima-desplazamendu gehien izango lituzkeen eskualdea; ondoren, Asia ekialdea eta Pazifikoa (49 milioi); Asiako hegoaldea (40 milioi); Afrikako iparraldea (19 milioi); Latinoamerika (17 milioi); eta Ekialdeko Europa eta Erdialdeko Asia (Munduko Bankua, 2020).

Ondorioak larriagoak izango dira eskualde txiro eta zaurgarrienetan

Azkenik, azpimarratu behar da klima-migrazioek **eragin desberdina dutela generoaren arabera**. Esan bezala, arrazoiak edozein dela ere, etxeak uzten dituztenean, emakumeek indarkeria handiagoa jasaten dute. Zehazki, migrazio klimatikoen testuinguruan, garrantzitsua da adieraztea genero-desberdintasunek eragiten dutela emakumeek hainbat diskriminaziori aurre egitea, hala nola: desnutrizioa eta osasun-arazo larriak, hezkuntzarako sarbide txikiagoa, salerosketaren biktima izateko arriskua, eta karga fisiko, psikologiko eta emozionalak areagotzea, besteak beste. Azken horri lotuta, testuinguru jakin batzuetan, emakumeak jatorrian geratu behar izaten dira, gizonezkoak direlako migratu ohi dutenak, eta emakumeak zaurgarritasun-egoeretan, indarkeria ugariren eta ihes egin nahi lieketen giza eskubideen urraketa etengabeen mende egotera behartzen baitituzte (ECODES, 2019).

3.2. Indarkeriak eta giza eskubideen urraketak giza mugikortasunaren eragile gisa

Pertsona askok beren borondatez emigratzea aukeratzen duten arren, faktoreen konbinazio konplexuaren ondorioz, gero eta jende gehiagok ihes egin behar izaten du etxetik. Hala, migrazioarako arrazoi dira gatazka armatuko testuinguruak, pobrezia, askatasuna mugatzen duten erregimen politikoak eta sexu, genero, erlijio, iritzi politiko edo sexu-joeragatiko jazarpena eta desberdintasuna; baita eskubide sozial eta ekonomikoen urraketa ere, hala nola hezkuntza, osasuna, elikadura, ura edo etxebizitza eskuratzekoa; azken batean, bizitza duina izateko aukerarik ez izatea. Nahiz eta batzuk ofizialki onartuta dauden migrazio behartuaren kausatzat eta nazioarteko babes eskatzeko aukera ematen duten, beste batzuk, eskubideak urratzea badakarte ere, ez daude hala onartuta, eta borondatezko migrazio ekonomikoarekin lotzen dira; hala, egoera horretan migrazio-prozesu bati aurre egiten dion pertsonaren babesgabetasuna eta zaurgarritasuna areagotzen dira. Alde horretatik, 2020an, nazioarteko biztanle migratzaileen kopuru osoa 280,6 milioi pertsonakoa izan zen, eta % 30 inguru migrazio behartutzat hartu ziren.

Indarkeria horiek eta eskubideen urraketak emakumeengan duten eragin bereiziari dagokionez, nahiz eta emakumeen aurkako indarkeria-kasu batzuk nazioarteko babes-sistemak onartzen dituen, oraindik ez dira onartzen genero-arrazoiengatik gertatzen diren desberdintasunak migrazio-kausatzat. Ildo horretatik, egiturazko matxismoaren eta genero-rol tradizionalen ondorioz sortzen diren emakumeen aurkako indarkeriek giza mugikortasuna eragiteaz gain, horien izaera transnazionalak indarkeria eta eskubideen urraketa eragiten ditu migrazio-prozesu osoan zehar, jatorritik xede den lekuraino; eta migrazio-prozesuan emakumeen zaurgarritasuna eta babesik eza areagotzen ditu.

Nazioarteko babes-sistemak aitortutako kausak

Emakumeen eta nesken aurkako indarkeria, gerra-egoeretan edo gatazka armatuetan gerrako arma gisa erabiltzen dena. Testuinguru horietan, emakumeen aurkako indarkeriaren ereduak ez dira modu naturalean sortzen, baizik eta agindu, onartu, toleratu eta gauzatu egiten dira, erabateko zigorgabetasunez, estrategia politikoen ondorioz (Amnistia Internazionale, 2004). Indarkeria mota horiek, besteak beste, sexu-eraso eta -abusuak, mutilazio genitala, ezkontza eta haurdunaldi behartuak, prostituzio behartua edo pertsonen salerosketa dira; gatazka-egoeretan gertatzen direnean, normalean, migrazio behartuaren kausatzat hartzen dira.

Familia barruko indarkeria emakumeek ihes egiteko arrazoi ohikoenetako bat da. Izan ere, kalkulatzen da mundu osoko emakumeen % 35ek indarkeria fisikoa eta/edo sexuala jasan duela bikotekidearen edo bikotekidea ez den beste baten aldetik. Gainera, munduko 137 emakume hiltzen ditu egunero familiako kide batek (NBE Emakumeak, 2021). Datuen gogortasuna eta argitasuna gorabehera, indarkeria hori, behartutako migrazioaren eragile gisa, ez da aintzat hartzen herrialde guztietan, eta, herrialde horietan, nazioarteko babesa onartzeko eta eskuratzeko izapideek, askotan, emakumeen estigmatizazioa eta birbiktimizazioa dakarte, hurrengo kapituluetan ikusiko dugun bezala.

Sexu-joeraren edo genero-identitatearen ondoriozko indarkeria da ihesa eragiten duen beste eskubide-urraketa bat. Gaur egun, Afrikako herrialdeen % 61ean eta Asiako % 52an, oraindik debekatuta eta zigortuta daude sexu bereko pertsona helduen artean adostutako sexu-ekintzak, eta herrialde batzuetan heriotza-zigorra ere ezartzen zaie. Latinoamerikaren eta Kariberen kasuan, herrialdeen % 27k LGTBQ+ kolektiboarekiko diskriminazio-legeak dituzte (EPDATA, 2021). Gainera, kontuan hartu behar da, sexu bereko pertsonen arteko sexu-ekintzak legezkoak izan arren, estatu batzuetan oraindik ere badela segurtasun-gabezia bat hainbat sexu-orientazio, genero-identitate edo -adierazpen dituzten pertsonentzat.

“Askotan, LGTBQ+ pertsona migratzaileak diskriminatu eta estigmatizatu egiten dituzte beren komunitateek, bai eta kultura nagusiak ere, bai jatorrian, bai xede-lekuan, eta migrazio-bidean zehar”.

MIGRATZAILEEN GIZA ESKUBIDEEN BURUZKO KONTALARI BEREZIA (NBE GIZA ESKUBIDEEN KONTSEILUA, 2019).

Deskribatutako testuinguruek erakusten dute migrazio-prozesuen jatorria zuzen lotuta dagoela eskubideak urratzearekin. Zoritxarrez, mehatxu horiek ez daude jatorrian soilik, eta iragatean eta xede-lekuan ere errepikatzen diren ereduak dira. Hala, hurrengo epigrafean aztertuko dugun moduan, migrazio-fluxuen aniztasuna gorabehera, eredu sozioekonomiko globalaren oinarri diren botere-egitura desberdinek eta giza eskubideen ikuspegitik migrazio-politikarik ez egoteak betikotzen dituzte indarkeria eta horrek emakumeengan duen eragin berezia.


4. Babesgabetasuna iragatean

Migrazioak faktore ekonomiko, geografiko, demografiko eta politikoei erantzuten die, besteak beste; izan ere, urtetan, biztanleria-fluxuei denboran zehar eusten dieten migrazio-bideak osatu dituzte.

5 migrazio-korridore nagusiak, 1995az geroztik, pertsona-kopuruaren arabera (IOM, 2022)



1. Mexiko → AEB (11 milioi pertsona)
2. Siriako Arabiar Errepublikak → Turkia (4 milioi pertsona)
3. India → Arabiar Emirerri Batuak (3 milioi pertsona)
4. Errusiako Federazioa → Ukraina (3 milioi pertsona)
5. Ukraina → Errusiako Federazioa (3 milioi pertsona)



Korridoreek migrazio-mugimenduen metaketa adierazten dute denboran zehar, eta migrazio-ereduak xede-herrialde jakin batzuetan jaiotako populazio esanguratsu bihurtu direla erakusten dute. Grafikoan ageri diren munduko bost migrazio-korridore nagusiek migrazio-fluxuen aniztasuna eta haien ezaugarriak nabarmentzen dituzte, migrazioa eragiten duten faktore nagusiak desberdinak baitira testuinguru bakoitzean. Hala, Indiatik Arabiar Emirerri Batuetara migratzen duen biztanleriarena, nagusiki, lan-migrazioa da; eta Siriako Arabiar Errepublikatik Turkiara ihes egiten dutenak errefuxiatuak dira nagusiki. Mexiko eta AEBen arteko bideak, berriz, askotariko populazioa biltzen du; izan ere, lan- eta ekonomia-migrazioari gehitu behar zaizkio Erdialdeko Amerikako herrialdeetako egiturazko ezegonkortasunetik eta gatazka soziopolitikoetatik ihes egiten duten pertsonak. Alde horretatik, migrazio-bideen segurtasun falta, babesik eza eta heriotza-tasa handiagoa da batzuetan besteetan baino. Izan ere, pertsonak migrazio-prozesu bati ekitera bultzatzen dituzten arrazoiak bezalaxe, asko dira iragatearen berezitasunak definitzen dituzten faktoreak ere. Faktore sozial, politiko, ekonomiko, ingurumeneko edo politikoei zuzeneko eragina dute migrazio-esperientzian.

Dituen ezaugarriengatik, irregulartasuna eta aurreikusteko ezintasuna migrazio-prozesuak deskribatzen dituzten elementuak dira, zehazki, migrazio behartuari eta migrazio irregularrari lotutakoak. Populazio horiek bide arriskutsuak egiten dituzte maiz, eta esplotazioak eta indarkeriak markatutakoak. Horien aurrean, emakumeak sentikorragoak dira genero-desberdintasunen ondorioz.

Iragatearen fasean, emakumeak sentikorragoak dira genero-desberdintasunen ondorioz ere, garraioarekin, desinformazioarekin, ostatuarekin edo mugak zeharkatzearekin lotuta sortzen diren behar eta ezustekoek beste pertsona batzuen mende egotera behartzen baitituzte emakume asko, horiei aurre egiteko. Errealitate horrek erakusten du emakumeenganako indarkeriek duten interseksionalitatea, genero-rol tradizionalei eta migratzaile izaerari “pobreziaren feminizazioa” gehitu behar baitaie, horrek gizonek eta emakumeek pobrezia modu desberdinean jasaten dutela onartzen baitu, eta generoak areagotu egiten duela emakumeek pobrezia jasateko duten zaurgarritasuna. Faktore horien gainjartzearen ondorioz, emakumeei iruzur egiten zaie eta esplotatu egiten dira maiz. Ildo beretik, harreman estua dago migrazio-prozesuan zaurgarritasuna areagotzearen eta amatasunaren artean. Izan ere, seme-alabekin migrazio-bideari ekiten diotenez gain, emakume asko ama dira migrazio-prozesuan zehar, gehienetan bortxaketek eta sexu-abusuek eragindako nahi gabeko haurdunaldien ondorioz. Zalantzarik gabe, eskubideen urraketa horrek bidea baldintzatu, aldatu eta gogortu egiten du, eta eragin handia du osasun mentalean zein fisikoan.

Hala ere, esan behar da, iragatea ez dela zaurgarritasun handieneko egoera aipatutako indarkerien eraginez soilik, eta nazioetako gobernuak eta nazioarteko eragileek diseinatutako disuasio-politikek ere migrazioaren kudeaketa ordenatua, segurua eta erregularra eragozten dutela. Faktore horien konbinazioa gaur egun aktibo dauden migrazio-fluxu gehienek iragate-etapetan erreplikatzeko den eredu da.




4.1. Europa: giza eskubideen eta generoaren ikuspegirik gabeko migrazioa

2000. urteaz geroztik, nazioarteko pertsona migratzaileen kopurua 30 milioi igo da Europan, eta horrek 2020an 86,7 milioi biztanle atzerritar izatea eragin du. Kopuru hori Europako biztanleria osoaren % 11,6 baino ez da, eta biztanleria osoaren % 1,09.

Munduko populazio osoarekiko proportzio oso txikia den arren, Europa da munduko biztanle migratzaile gehien dituen kontinentea. Datu horiek azken urteotan kontinentean eta planetan zabaldu den gorrotoaren eta beldurraren kultura desmuntatzen dute, eta agerian uzten dute Europako gobernu nazionalak eta agentzia politikoek ez dutela batere borondaterik migrazio seguru, ordenatu eta erregularraren aldeko apustua egiteko, genero-ikuspegitik begiratuta giza eskubideak bermatuko dituen. Izan ere, kapitulu honetan aztertzen dugun bezala, Europan bizi den nazioarteko biztanleria migratzailearen % 51,6 emakumeak dira, eta, migrazio-fluxuei dagokienez, kontinentea askotariko ezaugarriak dituzten migrazio-bideen xede da; Europako migrazioari lotutako eskualde eta nazioetako antolamendu juridiko eta politikoek, ordea, disuasio-izaeragatik, migrazioa oztopatzeagatik eta genero-eta giza eskubideen ikuspegirik ez izateagatik nabarmentzen dira.

4.1.1 Migrazio bideen dibertsitatea




Termino absolutuetan, Alemania da biztanle migratzaile gehien dituen Europako herrialdea, eta atzetik ditu Errusia, Erresuma Batua, Frantzia, Espainia eta Italia. Hala ere, bertako biztanleriarekin alderatuta migratzaileen proportzio handiena duten herrialdeak honako hauek dira: Liechtenstein (% 67,9), Monako (% 67,8), Andorra (% 59), Luxenburgo (% 47,6) eta Suitza (% 28,8) (Migrazioari buruzko munduko datuen ataria, 2020).

Nazioarteko biztanle migratzaile guztietatik, erdiak baino gehiago kontinente berean jaioetakoak dira, eta bereziki Ekialdeko herrialdeetatik etorriak, hala nola Errusiako Federaziotik, Ukrainatik, Poloniatik eta

Errumaniatik. Joera horri lotzen zaio nazioarteko migrazioa Alemanian; azken bost urteotan, 5 milioiko igoera izan du, eta, batez ere, kontinentearen ekialdeko herrialdeetatik joanak dira, Polonia, Turkia, Errusiako Federazioa, Kazakhstan eta Siriako Arabiar Errepublikatik, besteak beste. Ez da hala gertatzen Frantzia, non Afrikako iparraldeko herrialdeetan jaiotako pertsonak baitira herrialde horretako nazioarteko migratzaile-populazio handienak. Erresuma Batuan, populazio migratzaile handienetako batzuek Indian, Polonian eta Pakistanen zuten jatorria.

2015etik aurrera, Espainiak eta Italiak gora egin dute atzerrian jaiotako pertsona migratzaileen kopuruari dagokionez. **Italiakoak, batez ere Errumaniatik, Albaniatik eta Marokotik joanak dira** (datosmacro, 2020). Espainian, berriz, % 34 inguru da Europako herrialderen bateko biztanleria migratzailea. Hala ere, gatazka-egoerak eta ezegonkortasun soziopolitikoak direla eta, azken urteotan hazkunde handienak jatorria Kolonbian, Venezuelan eta Marokon duten biztanleenak izan dira, nahiz eta ez diren Espainiako nazioarteko biztanleria migratzaile osoaren % 5,54, % 3,89 eta % 14,43 baino, hurrenez hurren (INE, 2021).



Iturria: National Geographic (2019); OIM (2020); Acnur (2021).

Pertsona guztiek ez dute migratzen baldintza berberetan, ezta arrazoi berberengatik ere.

1 Azaldutako datuak Ukrainan gerra piztu baino lehen aztertu ziren; izan ere, 7 egunetan milioi bat pertsonak utzi behar izan dute Ukraina. Gehienek Polonia, Hungaria, Moldavia, Errumania eta Eslovakiara egin dute ihes.

Desplazamendu behartua

Alemania, 1,2 milioi pertsonarekin, munduko bosgarren postuan eta Europako lehenengoan dago, herrialdean bizi diren errefuxiatuen eta asilo-eskatzaileen kopuruari dagokionez. Europako mailan, Frantzia bigarren tokian dago, atzetik Suedia eta Italia dituela (Migrazioari buruzko datuen ataria, 2020).

2020an aurkeztutako asilo-eskaerei dagokienez, COVID-19aren pandemiak ezarritako mugikortasun-murrizketek datuen beherakada eragin zuten aurreko urteekin alderatuta. Hala, 2019an, 721.090 pertsonak eskatu zuten asiloa Europan, eta 2020an, **485.000 pertsonak, hau da, Europako populazioaren % 0,10ek**. Horren ondorioz, urte horretan ebatzeko zeuden eskaerak ebatzi ziren, eta % 18 murriztu ziren. Lehen instantzian, EB27+ -eko estatu kideetan 534.500 asilo-eskaera inguru jaso ziren, eta 237.000 erabaki bigarren instantzian hartu ziren. Horietatik % 58 eta % 71, hurrenez hurren, ezetsi egin ziren. Lehen eta bigarren instantziako ebazpenen % 42k eta % 20k, hurrenez hurren, nazioarteko babesa edo egoitza-baimena eman zuten arrazoi humanitarioengatik. Hala eta guztiz ere, oraindik 773.600 espediente daude ebatzi gabe. (EASO, 2021).



Eskatzaile gehien zituzten herrialdeak Siria (70.000), Afganistan (50.000), Venezuela (31.000), Kolonbia (30.000) eta Irak (20.000) izan ziren. Bost herrialde horietakoak dira Europan erregistratutako eskaera guztien ia erdiak. **Eskaeren % 63 3 herrialdetan baino ez ziren aurkeztu:** Alemanian (122.000 eskatzaile, EBn aurkeztutako eskaeren % 25,1), Frantzian (93.000, % 19,2) eta Espainian (89.000, % 18,3) (EASO, 2021).

Asilo-eskaera kopuru handiena jasotzen duen hirugarren herrialdea izan arren, azpimarratu behar da Espainiako onespent-tasa EBkoa baino txikiagoa dela: 2020an aldeko ebazpenak Espainian aurkeztutako ebazpen guztien % 4,9 izan ziren, eta Europako batez bestekoa % 33 ingurukoa izan zen (CEAR, 2020).

Espainiak jasotzen dituen eskaera gehienak Latinoamerikako biztanleenak dira, bereziki Kolonbiakoak eta Venezuelakoak (EASO, 2021). Hain zuzen, Espainian asilo-eskaeren lehen bost nazionalitateak latinoamerikarrak dira, Venezuela, Kolonbia, Honduras, Peru eta Nikaragua. Bostenak batuta, 70.406 eskaera daude, herrialdean aurkeztutako eskaera guztien % 79. Zehazki, Venezuelako eta Kolonbiako pertsonen eskaerak 55.961 dira, guztizkoaren % 63. Korrante politiko eta ideologiko arrazistek kopuru

Asiloa Espainian (2020)


89.000 eskaera



Aurkeztutako eskaeren % 63, jatorriz Kolonbiatik eta Venezuelatik



2020an ebatzitako eskaerak: 114.919



Ebatzeko dauden eskaerak: 103.385

horiek erabiltzen dituzte maiz, eta horrelakoak modu kezagarrian azaleratzen ari dira herrialdean. Hala ere, 2020an Espainian aurkeztutako 89.000 eskaerek biztanleria osoaren % 0,18 baino ez dute ordezkatzen.

Europar, eta zehazki Espainian, desplazamendu behartua gauzatu ondoren, nabarmendu behar da, asiloa eta ebazpena eskatzeko prozesuak konplexuago bihurtzen eta luzatzen diren heinean, are gehiago handitzen dela biztanleria baten zaurgarritasuna, biztanleria horrek, aldi berean, mugatuak eta bortxatuak ikusten baititu bere eskubideak, eta ziurgabetasunez eta oztopo instituzionalez betetako iragarte-faseari ekiten baitio, babesik gabe eta prekaritate larrian.

Migrazio irregularra

Migrazio irregularraren definizio unibertsalik ez dagoen arren, IOMk honela definitzen du: “migrazio erregularreko bideetatik kanpo mugitzen diren pertsonen mugimendua”. Pertsona horiek modu irregularrean migratzeak ez ditu estatuak salbuesten beren eskubideak babesteko betebeharretik. Hala ere, disuasioko migrazio-politiken gogortasunak eta malgutasunik ezak, migrazio seguru, ordenatu eta erregularraren aldeko neurrien kontrakoa, migrazio-prozesu konplexuak eragiten ditu, eta, prozesu horietan, pertsonak, irregulartasunagatik, muturreko zaurgarritasun-egoeren mende daude migrazio-prozesuan zehar, oinarritzko gizarte- eta kultura-eskubideak eskuratzeko ezintasuna edo zailtasuna dela eta.

Irregular izaera izan dezake herrialde horretan legez kanpo sartu delako, hau da, agiri faltsuekin edo muga ofizial bat zeharkatu gabe; bisatuaren edo egoitza-baimenaren baldintzak betetzen ez dituen herrialdean bizi delako; edo behar den baimena izan gabe enplegatua delako (Migraziorako datuen ataria, 2020). Oso konplexua da Europako populazio migratzaile irregularraren testuingurua eta irismena ezagutzea, populazio horren erregistro errealik ez dagoenez, ezinezkoa baita datu bereziak ateratzea. Informazio falta horrek milaka pertsonaren ikusezintasuna eta zaurgarritasuna areagotzen ditu, ez bakarrik iragatean, baita xede-lekuan bertan ere, hurrengo epigrafean ikusiko dugunez.

Aurreko paragrafoetik ondoriozta daitekeenez, migrazio irregularraren fenomenoak agiririk gabeko pertsonen desplazamenduari eta une jakin batean agiririk gabe dauden migratzaileen kopuruari dagokie. Beraz, herrialde bateko migratzaile irregularren populazioaren aldaketak migrazio “sarrera” eta “irteera” irregularren ondorio izan daitezke, baina baita herrialde horretan dauden migratzaileen, dokumentatu gabeen eta dokumentatuen egoera aldatzearen ondorio ere, edo alderantziz. Azken baldintza horri “bat-bateko irregulartasuna”² deritzo, eta, indarkeria eta eskubide-urraketak ikusezintasun-egoeran eta salatze gaitasun urriz esperimintatzeko arrisku handiagoa duen errealitatea izateaz gain, populazio horren errealitatea islatzen duen erregistro bat egotea zailtzen duen fenomeno nagusietako bat da.

Alde horretatik, Europak Mediterraneoko eta Balkanetako bideetatik egindako sarrera irregularrei buruzko datuak ditu; beste ingurune batzuetako biztanleriari lotutako erregistroak, aldiz, ia ez dira existitzen.

2015ean, milioi bat pertsona baino gehiago iritsi ziren kontinentera itsasoz, eta migrazio-mota horrek leku garrantzitsua du EBko agendan. Ekialdeko Mediterraneoko bidea (Turkia – Grezia) izan zen orduan erabiliena. 2016an eta 2017an, Erdialdeko Mediterraneoko bideek gora egin zuten (Libiatik Italiara,

2 BAT-BATEKO IRREGULARTASUNA. Pertsona migratzaile baten egoera irregularra, herrialde batean egoteko edo bizitzeko lehen betetzen zituen baldintzak betetzeari utzi diolako.

batez ere). 2018an, bideak aldatu egin ziren, eta Mendebaldeko Mediterraneokoa (Afrikako iparraldea – Espainia) izan zen Europara iritsitakoen kopururik handiena erregistratu zuena.

Europara iritsitakoen guztizko kopuru irregularrak nabarmen jaitsi dira 2016. urteaz geroztik, orduan 387.895 lagun iritsi baitziren; 2019an, berriz, 128.536 lagun iritsi ziren modu irregularrean Europara (IOM, 2022). Mugen esternalizazioari lotutako politikei zor zaie hori, 2015az geroztik Europatik ezartzen hasi baitira, agerian utziz kontinente horrek, borondate eta solidaritate faltaz, ez duela bere erantzunkidetasuna bereganatzen, ez bere betebeharrak bere gain hartzen.

Esternalizazio politikak

- Siriako gatazkaren ondorioz, Balkanetako bidean zehar errefuxiatuen fluxua handitu zen, eta gero, Europa erdialdeko herrialde askok, hala nola Hungariak, Esloveniak, Serbiak, Kroaziak eta Mazedoniak, beren mugak militarizatu zituzten, eta, aldi berean, **EBk akordio bat sinatu zuen Turkiarekin**, errefuxiatuak Turkiara itzultzeko aukera ematen duena. Akordio horrek Europako eta nazioarteko araudia urratzen du. Besteak beste, Giza Eskubideen Europako Hitzarmena, kanporatze kolektiboak debekatzen dituena; eta Genevako Konbentzioaren diskriminaziorik ezaren eta ez itzultzearen printzipioak (3. eta 33. artikulua, hurrenez hurren) (CEAR, 2016).
